

Maitasunaren iraungitze data



1. Iraungitze datak

Irakurri Yolanda Arrietak **BERRIA** egunkarian idatzitako iritzi artikulu hau:

Iraungitze datak

Emakume psikologo argentinar batek baieztatu du. Alegia, ezkontzek ere **iraungitze data** omen dute, eta data horretatik aurrera zakarretara bota, edo aldatu, edo berritu egin behar izaten omen dira, jogurten antzera, gaztaren antzera, janari aurrefabrikatuen gisa.

Berriak ez du gauza berririk esaten, ordea. Eпитeto asko daude dozena urtetik gorako bikote-bizikidetzari deitzeko. Gehiago esango dut, zientifikoki ziurtaturik omen dago lehen krisialdiaren data ere: zazpigarren urtea.

Delako emakume psikologoak, ordea, fenomenoaren ezaugarri bat azpimarratzen du. Hau da, itxura denez, egungo bikote harremanetan entrega gutxiago omen dago, eta, hain zuzen, bihotz emate-ez horren ondorioz sortzen dira, gero, delako krisialdi eta iraungitze datok.

Ez dakit ba, ez dakit. Nik bakarrik dakit ondokoa kafesnea zurrustaka edaten, puzkerrak edonon botatzen, atzamarrak sudurrean sartzen, orraztu gabe txandal zulatuaz pasilloak zeharkatzen, arropa zikina aulki gainean pilatzen hasten denean, iraungitze data horren ondorioak nabaritzen dituzula zuk, eta, orduan, argia **amatatzen** duzula, gauez katu guztiak beltzak direla gogoratuz.

Eta paktuen sasoia iristen da; beharren eta eskubideen zutabeak parekatzeko sasoia.

Inbentarioa egin ondoren, zer bota, zer berritu, zer birziklatu ekiten diozu, kafe edo te kikara beroa lagun duzula.

Eta orduan ikasten duzu maitasunari hainbeste ez eskatzen.

Iraungitze data: *fecha de caducidad*

Amatatu: *itzali*

Taldekieeen artean komentatu:

- 1- Zein da, idazlearen ustez, maitasunaren iraungitze data? Zure ustez, egia al da denbora tarte zehatz bat pasatuta maitasuna itzaltzen dela?
- 2- Zein dira, egilearen arabera, maitasuna iraungitzearen arrazoiak? Arrazoi gehiago aipatuko al zenituzke?
- 3- Zer egiten du idazleak maitasuna iraungitzen ari dela sumatzen duenean? Zuk berdin jokatuko zenuke?
- 4- Egilearen arabera, maitasunari hainbeste ez eskatzen ikasi behar dugu? Jarrera konformista iruditzen al zaizu? Edo errealista? Zein da zure iritzia?

2. Blanca eta Jon

Irakurri egoera hau eta erreparatu pertsonaietako bakoitzaren jokabideari:

Blanca eta Jon azken sei urte hauetan elkarrekin bizi izan dira. Jon Magisteritza Eskolako irakaslea da eta Blancak Aurrezki Kutxan egiten du lan. Larunbatean Blancak afaria izan zuen bere lankideekin. Afaldu eta gero Jimmy Jazz dantzalekura joan ziren eta oso pozik ibili ziren. Asko edan zuten. Blanca txolinduta zegoen eta Karlosekin ibili zen. Blancari Karlos ez zaio gustatzen baina ligatzeko gogoia zeukan eta Karlosen etxean amaitu zuen gaua.

Orain Blancak ez daki zer egin: Joni kontatu ala ez. Alde batetik, tontakeria bat izan da, ez baitu Karlosekin berriro oheratu nahi. Hala ere, gaizki iruditzen zaio Joni gertatutakoa ez kontatzea. Bestetik, tontakeria bada, zertarako kontatu? Jon alferrik tristatzea besterik ez du lortuko, eta Jonek ez du horrelakorik merezi.



Taldekideen artean komentatu:

- 1- Zure ustez zer egin behar du Blancak? Eta Karlosek?
- 2- Nola eta zer esan behar dio Blancak Joni?
- 3- Nola minduko du gehiago Blancak Jon, egia kontatuz ala ezkutatuz?
- 4- Zure ustez, gaizki jokatu al zuen Blancak Karlosekin ligatzean? Eta Karlosek?
- 5- Jon izango bazina, nahiago zenuke egia osoa jakin, ala ezjakintasunean pozik bizi?

Irakurri paragrafo hau eta, pertsonaietako bakoitzaren larruan sartuta, berridatzi bakoitzak bere ikuspuntutik eta lehenaldian kontatuko balu bezala.

Blancak Karlos ikusi duenean, harekin ligatzeko gogoia sentitu du. Karlosek ez du ezer egitera behartu, bion nahia izan da. Biharamunean Blancak ez daki zer egin. Karlosi deitu dio aholkua eskatzeko. Karlosek urduri sumatu du Blanca eta lasaitu egin du. Esan dio harentzat ere tontakeria bat izan dela eta Joni kontatu behar diola.

Blancak Karlosi kontatuta: *Ikusi zintudanean, zurekin ligatzeko gogoia sentitu nuen. Zuk ez ninduzun ezer egitera behartu, bion nahia izan zen*

.....

Blanca Joni kontaktuta: *Karlos ikusi nuenean,*.....
.....
.....

Karlosek Blancari kontaktuta:
.....
.....

Karlosek Joni kontaktuta:
.....
.....

Jonek Blancari kontaktuta:
.....
.....

3. Inoiz ez da berandu dibortziateko

Hirugarren adineko bikoteen artean dibortzio kopurua handitu egin da. Etorkizunean ere banantzeak ugaritu egingo direla kontatzen du jarraian ikusiko duzun bideoak.

Bideoa ikusi aurretik, jarri bikoteka eta gaiari buruz hitz egin ondoko galderei erantzunez.


- Urte asko ezkondua egon ondoren dibortzatu den adineko bikoteren bat ezagutzen duzu?
- Orain lehen baino gehiago gertatzen dela uste duzu? Zergatik?

Loliren esperientziari buruzko bideoa ikusi:

<https://labur.eus/2PIQC>

Zer kontatzen du bideoak? Kontatu zure hitzez:

.....
.....
.....
.....
.....



Bideoa ikusi eta aukeratu erantzun egokia.

1. Loliri, eguna...

- gazi-gozoa egiten zaio banandu denetik.
- luze egiten zaio banandu denetik.
- motz geratzen zaio banandu denetik.

4. Loliren pasioak dira:

- margoa, antzerkia eta kirola.
- margoa, dantza eta kirola.
- margoa, antzerkia eta kantatzea.

2. Noiz hartu du Lolik banantzeko erabakia?

- Udazken honetan.
- Aurreko udan.
- Uda honetan.

3. Loliren lagunek diote...

- oso kaskarina dela.
- oso ezkorra dela.
- oso ausarta dela.

5. Lehen, adineko bikoteak ez ziren hainbeste bereizten. Zergatik?

- Erlijioak ez zuen eraginik, baina ekonomikoki ezinezkoa zen.
- Ekonomikoki aukera izan arren, erlijioak zuen eraginagatik.
- Erlijioak eta ekonomiak zuten pisuagatik.

4. Ez dadila motz geratu

Zerbait laburregia egiten zaigunean **motz geratu zaigula** esan ohi dugu.

Adibidez: *Loliri, egunaren hogeita lau orduak motz geratzen zaizkio banandu denetik.*

Pentsatu zuri motz geratu zaizun egoeraren bat: pelikula bat, liburu bat, hitzaldi bat, kontzertu bat, oporraldi bat, harreman bat... Idatzi paragrafo batean hari buruz. Ikusi eredia:

Duela bi urte Holandara joan ginen oporretara. Furgoneta batean egin genuen bidaia batetik bestera askatasun handiagoz mugitzeko. Kosta aldetik gorantz igo, eta barnealdetik jaistera zen gure asmoa. Bi asteko bidaia aurreikusí genuen, baina azkenean 17 egun pasa genituen. Hala ere, motz geratu zítzaigun, eta urte batzuk barru berriz itzuliko garela erabakí genuen.



2. Blanca eta Jon

Blanca Karlosi kontatuta: *Ikusi zintudanean, zurekin ligatzeko gogoia sentitu nuen. Zuk ez ninduzun ezer egitera behartu, bion nahia izan zen. Biharamunean ez nekien zer egin. Zuri deitu nizun aholkua eskatzeko. Zuk urduri sumatu ninduzun eta lasaitu egin ninduzun. Esan zenidan zuretzat ere tontakeria bat izan zela eta Joni kontatu behar niola.*

Blanca Joni kontatuta: *Karlos ikusi nuenean, harekin ligatzeko gogoia sentitu nuen. Berak ez ninduen ezer egitera behartu, bion nahia izan zen. Biharamunean ez nekien zer egin. Karlosi deitu nion aholkua eskatzeko. Berak urduri sumatu ninduen eta lasaitu egin ninduen. Esan zidan harentzat ere tontakeria bat izan zela eta zuri kontatu behar nizula.*

Karlosek Blancari kontatuta: *Ikusi ninduzunean, nirekin ligatzeko gogoia sentitu zenuen. Nik ez zintudan ezer egitera behartu, bion nahia izan zen. Biharamunean ez zenekien zer egin. Deitu zenidan aholkua eskatzeko. Nik urduri sumatu zintudan eta lasaitu egin zintudan. Esan nizun niretzat ere tontakeria bat zela eta Joni kontatu behar zeniola.*

Karlosek Joni kontatuta: *Blanca ikusi ninduenean, nirekin ligatzeko gogoia sentitu zuen. Nik ez nuen ezer egitera behartu, bion nahia izan zen. Biharamunean Blanca ez zekien zer egin. Niri deitu zidan aholkua eskatzeko. Nik urduri samar sumatu nuen eta lasaitu egin nuen. Esan nion niretzat ere tontakeria bat zela eta zuri kontatu behar zizula.*

Jonek Blancari kontatuta: *Karlos ikusi zenuenean, harekin ligatzeko gogoia sentitu zenuen. Berak ez zintuen ezer egitera behartu, bion nahia izan zen. Biharamunean ez zenekien zer egin. Karlosi deitu zenion aholkua eskatzeko. Karlosek urduri samar sumatu zintuen eta lasaitu egin zintuen. Esan zizun harentzat ere tontakeria bat izan zela eta niri kontatu behar zenidala.*

3. Inoiz ez da berandu dibortziazeko

Zer kontatzen du bideoak?

82 urterekin banantzea erabaki duen emakume baten esperientzia kontatzen du. Senarrarekin urte asko pasa ondoren hartu du erabakia, eta pozik dago hartutako erabakiarekin

Bideoa ikusi eta aukeratu erantzun egokia.

1. Loliri, eguna...
motz geratzen zaio banandu denetik. ✓
2. Noiz hartu du Lolik banantzeko erabakia?
Uda honetan. ✓
3. Loliren lagunek diote...
Oso ausarta dela. ✓
4. Loliren pasioak dira:
margoa, antzerkia eta kirola. ✓
5. Lehen, adineko bikoteak ez ziren hainbeste bereizten. Zergatik?
Erljiioak eta ekonomiak zuten pisuagatik. ✓